



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2018.09.24

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

**Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Beloso
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar**

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:

Ainhoa Molinos Zubiaurre

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko irailaren hogeita lauan, 8:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. Aurreko akta onartzea.
2. Onartzea Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolan aldi baterako dultzaina-irakasle baten deialdia eta oinarriak.
3. Onartzea Tolosaldea Garatzen 2018ko udal-ekarpena egitea: 2. zatia.
4. Onartzea Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa. 2018ko ekaina.
5. Onartzea Amarotz auzo elkartearen aldeko diru laguntzari buruzko akats-zuzenketa.
6. Onartzea Tolosako Amarotz auzoko "AUZOETXE" eraikin osoaren eta Anbulatorioko lokalaren zatikako berregokitzearen kontratazio-espedientea eta hasiera ematea lizitazio-jardunbideari.
7. Beotibar frontoiko ostalaritza-erakinekoko lehen solairuan kokaturiko jatetxearen jabariko emakida huts deklaratzeko.
8. Beotibar frontoiko ostalaritza-erakinekoko beheko solairuan



kokaturiko kafetegiaren jabariko emakida huts deklaratzeari buruz.

9. 49/2018 eta 50/2018 faktura-zerrendak.

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2018ko irailaren 17an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute akta.

2. ONARTZEA EDUARDO MOKOROA UDAL MUSIKA ESKOLAN ALDI BATERAKO DULTZAINA-IRAKASLE BATEN DEIALDIA ETA OINARRIAK.

AURREKARIAK

2018ko abuztuaren 14an, Joxe Manuel Agirre Arostegik Udalarari jakinarazi zion aurtengo ikasturtean dultzainako irakasle gisa ez zuela jarraituko Udala Musika Eskolan. Udalak beste udaletxeekin amankomunean dituen beste lan postuetako izangaiei deitu ondoren, ez da inor prest agertu hutsik geratu den lanpostu hau betetzeko; horregatik, eta kontuan izanda jadanik ikasturtea hasita dagoela, premiazko izaeraz oinarri batzuk onartu eta hautaketa prozesu arin eta azkar bat egitea proposatu da Giza Baliabideen Departamentutik, behintzat lanpostua aldi baterako betetzeko eta zerbitzua eman ahal izateko. Honetarako, Musika Eskolako zuzendariak dagokion txostena egin du behar hau justifikatuaz.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

a) LANPOSTUAK BEHIN BETIRAKO BETETZEKO MUGAK: 2018KO ESTATUKO AURREKONTU OROKORRA

I.- 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoen Oinarriko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duenak, bere 10. artikuluan bitarteko funtzionarioen araubidea xedatzen du, honako era honetan:

1. Son funcionarios interinos los que, por razones expresamente justificadas de necesidad y urgencia, son nombrados como tales para el desempeño de funciones propias de funcionarios de carrera, cuando se dé alguna de las siguientes circunstancias:

a) La existencia de plazas vacantes cuando no sea posible su cobertura



TOLOSAKO
UDALA

por funcionarios de carrera.

b) La sustitución transitoria de los titulares.

c) La ejecución de programas de carácter temporal, que no podrán tener una duración superior a tres años, ampliable hasta doce meses más por las leyes de Función Pública que se dicten en desarrollo de este Estatuto.

d) El exceso o acumulación de tareas por plazo máximo de seis meses, dentro de un período de doce meses.

.../...

3. El cese de los funcionarios interinos se producirá, además de por las causas previstas en el artículo 63, cuando finalice la causa que dio lugar a su nombramiento.

4. En el supuesto previsto en la letra a) del apartado 1 de este artículo, las plazas vacantes desempeñadas por funcionarios interinos deberán incluirse en la oferta de empleo correspondiente al ejercicio en que se produce su nombramiento y, si no fuera posible, en la siguiente, salvo que se decida su amortización."

Beraz, aipatu Legearen 10.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, bitarteko funtzionarioen bidez hornitzen diren lanpostuak Lan Eskaintza Publikoan sartu behar dira, bitarteko funtzionarioa izendatzen den urtean edo hurrengoan, eta era finkoan hornitzen dira edota amortizatu egin behar dira.

Zentzu berean, 781/1986 Errege Dekretuak, apirilaren 18koak, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenei buruzko Testu Bategina onartzen duenak, bere 128. artikuluan xedaturikoaren arabera, Toki-Korporazioek urtero ekitaldiari dagokion Lan Eskaintza Publikoa onartu eta argitaratu behar dute, aurrekontua onartu eta hilabeteko epe barruan, funtzio publikoak ezarritako legediarekin bat etorriz. Artikulu horren 2. atalak behin betiko pertsonala izendatzeko ondoko betebeharra ezartzen du:

"2. No podrá nombrarse personal interino para plazas que no se hayan incluido en la oferta de empleo público, salvo cuando se trate de vacantes realmente producidas con posterioridad a su aprobación.

El personal que ostentare la condición de interino cesará automáticamente al tomar posesión como funcionarios de carrera los aspirantes aprobados en la respectiva convocatoria. Sólo podrá procederse al nombramiento del nuevo personal interino para las plazas que continúen vacantes una vez concluidos los correspondientes procesos selectivos."

II.- Aldi berean, aplikatu beharreko Funtzio Publikoko araudiari dagokionez, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutua arautzen duen urriaren 30eko 5/2015eko Errege Dekretu Legegilearen 7. eta 11 artikuluek, Toki erakundeetako pertsonal laboralari dagokionez, ondokoa xedatzen dute:



“Artículo 7 Normativa aplicable al personal laboral

El personal laboral al servicio de las Administraciones Públicas se rige, además de por la legislación laboral y por las demás normas convencionalmente aplicables, por los preceptos de este Estatuto que así lo dispongan.

Artículo 11 Personal laboral

1. Es personal laboral el que en virtud de contrato de trabajo formalizado por escrito, en cualquiera de las modalidades de contratación de personal previstas en la legislación laboral, presta servicios retribuidos por las Administraciones Públicas. En función de la duración del contrato éste podrá ser fijo, por tiempo indefinido o temporal.

2. Las leyes de Función Pública que se dicten en desarrollo de este Estatuto establecerán los criterios para la determinación de los puestos de trabajo que pueden ser desempeñados por personal laboral, respetando en todo caso lo establecido en el artículo 9.2.”

Hortaz, kontratatzea proposatzen den langilea aldi baterako izaera duen lan-kontratu bidez izango da, 2/2015eko Errege Dekretu Legegileak, urriaren 23koak, Langileen Estatutua arautzen duenak, bere 15. artikuluan xedatutakoaren arabera, non bere 1. a) atalean aldi baterako iraupena duten kontratuak zerrendatzen dituenean, kasu honetan hutsik dagoen lanpostu bat ordezkatzeko kontratua aurreikusten den.

III.- Azken urteetako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituzten legeek Herri Administrazioetan lan eskaintza publiko bidez pertsonal berria sartzeko mugak ezarri dituzte. Kasu honetan, 2018ko ekitaldirako, uztailaren 3ko 6/2018 Legeak, bere 19. artikuluan, Lan eskaintza publikoen inguruan erreposizio tasa sektore zehatz batzuetan bakarrik ahalbideratzen du betetzea.

Horregatik, lege honetatik ondorioztatu daiteke ezin dela 2018. urtean aipatu plaza hau behin betiko izaeraz bete, soilik behin-behineko izaeraz, eta 2019. urtean, erreposizio tasa betetzen badu Udalak, orduan hau behin betiko izaeraz hornitu ahal izango du.

IV.- Bestalde, aldi baterako izendapen zein kontratazioei dagokienez, aipatutako 6/2018 Legeak 2018. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen ditu. Bertan, aipatu Legearen 20. artikuluko bigarren apartatuak dioenaren arabera, ezin izango da egin aldi baterako kontrataziorik, ezta bitarteko funtzionariorik izendatu ere, baldin eta ez bada salbuespenezko kasuren bat, premiazko eta atzeraezinezko beharren bati erantzuteko; gainera, mugatuko dira lehentasunezko izaera duten edo funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduetan eragina duten sektore, funtzio eta kategoria profesionaletara.

Horregatik, departamentu bakoitzeko txosten/proposamenak eduki behar ditu, gutxienez, hurrengo atal hauek:



TOLOSAKO
UDALA

- Proposatuta nahi den kontratazioak ohiz kanpokoak izan behar du eta ez inolaz ere kasu arrunta.
- Txostenean justifikatu eta arrazoitu egin behar dira kontratazioaren premia eta geroraezintasuna.
- Kontratazio proposamena mugatu egin behar da lehentasunezko izaera duten sektore, funtzio eta kategoria profesionaletara. Horretarako, justifikatu egin behar da lehentasun hori, kontuan izanda zure departamentuan une konkretu bakoitzean dauden beharrak.

Hori guztia kontuan hartuta, Musika Eskolako zuzendariak 2018ko irailaren 20ko txostenean aspektu horiek justifikatu ditu.

b) DEIALDIA ONARTZEKO ARAUAK

Ilido honetatik, dultzainako irakasle lanpostu hau betetzeko oinarriak prestatu dira, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutua arautzen duen urriaren 30eko 5/2015eko Errege Dekretu Legegilean oinarritzen den berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioetan oinarrituta, langile hau kontratatze beharra eta urgentzia justifikatu ondoren.

Zentzu berean, 9/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoa arautzen duenak, bere 33. artikuluan ondorengoak xedatzen du: "33. atala.1. Bitarteko funtzionarioak eta aldi baterako langilegoa arauz jarritako prozedurari jarraiki aukeratuko dira, agiritasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasun-erizpideak kontutan izanik eta ahalik eta bizkorren jokatzeko saiaturik. Dena dela, bitarteko eta aldi baterako langilegoak titulaziori buruzko eskakizun nagusiak eta aldikotasunez beteko duten lanpostura iristeko edo bete behar duten egitekorako eskatutako gainerako baldintzak bete beharko dituzte."

c) ONARTZEKO PROZEDURA

Batetik, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 g) artikulua araberak, Alkateak eskuduntza du gai hau onartzeko, baina bestetik, 2015eko uztailaren 28an, Alkateak berak emandako ebazpenaren bidez, Toki Gobernu batzarrean delegatu zuen oinarriak onartzeko eskuduntza; hortaz, organo honek onartu beharko ditu deialdia arautzen dituen oinarriak.

Aurreko guztia aintzat harturik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENEA.- Dultzaina-irakaslea hautatzeko deialdia lehentasunezko deklaratzeko, zerbitzua premiazkatatuta eta geroraezintzat jotzen delako.



TOLOSAKO
UDALA

BIGARRENA.- Onartzea lanpostu hau behin-behineko izaeraz betetzeko deialdia eta oinarriak, eta dagokion publizitatea ematea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Giza Baliabideen Departamentuari eta Kontuhartzaitzari.

3. ONARTZEA TOLOSALDEA GARATZENI 2018KO UDAL-EKARPEA EGITEA: 2. ZATIA.

I. 2018ko irailaren 17an, 7121 sarrera zenbakiarekin, Tolosaldea Garatzen eskualdeko agentziak ondorengo dokumentazioa erregistratu zuen:

2018ko ekarpena egiteko eskaera.

II. Tolosaldea Garatzenek, 2017ko abenduaren 19ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2018. urterako Tolosako Udalak Tolosaldea Garatzeni egin beharreko ekarpena aurkeztu zuen. Ordainketa bi zatitan egitea erabaki zen.

Tolosako Udalari dagokionez, ekarpen honen kopurua hau da:

2018ko Gestio Plana jorratzeko	130.975,00 €
Lehenengo ordainketa (2018/03/30ean)	65.487,50 €
Bigarren ordainketa (2018/09/30ean)	65.487,50 €

III. Tolosako Udaleko 2018ko aurrekontuan 1100.422.01.430.10 partidan aurreikusten da 130.975 euro ekarpena.

IV. -2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bere 17.1.25 artikuluan jartzen duenaren arabera, udalerriek, besteak beste, honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: tokiko ekonomia eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo politika.

V. Gobiernu Batzarrak 2018ko maiatzaren bian erabaki zuen Tolosaldea Garatzeni ekarpena egitea, hau da, 130.975,00 €, eta orduan lehenengo ordainketa egitea (65.487,50 €) . Orain bigarren ordainketa egin behar da (65.487,50 €).

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobiernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENENA.- Onartzea TOLOSALDEA GARATZENen 2018ko ekarpenari dagokion bigarren ordainketa egitea, hau da, 65.487,50 euro.



TOLOSAKO
UDALA

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Enplegu Departamentuari, Kontuhartzaitzari eta Tolosaldea Garatzeni.

4. ONARTZEA TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEARI EGIN BEHARREKO EKARPEN EKONOMIKOA. 2018 EKAINA.

Aurrekariak

Tolosaldeko Mankomunitatearen Osoko Bilkurak, 2014. ekitaldian, irizpide berriak onartu zituen, zehazteko udalek zer ekarpen egin behar dituzten mankomunitateko gastuei aurre egiteko. Irizpide horien oinarria da bilketa-sistema desberdinak daudela, eta zati finko bat eta zati aldakor bat ezartzen dira: zati finkoa, komunean dauden gastuei aurre egiteko, eta zati aldakorra, udalek jasotzen dituzten zerbitzuen kostuetan oinarrituta.

2018ko urtarrilaren 17an, Tolosaldeko Mankomunitateko Batzarrak 2018ko ekitaldiko aurrekontua onartu zuen, non ekitaldiko gastuen eta sarreraren xehetasunaz gain, udalen ekarpen finkoen banaketaren berri eman zen.

2018ko ekainaren 26an, Gobernu Batzarrak Tolosaldeko Mankomunitateari ordaindu beharreko ekarpen finkoa onartu zuen. Hala, 2018ko ekainaren 1etik aurrera, ekarpen finkoa hileko 91.410,33 €-koa da.

2018ko ekaineko datuak

Ekarpen finkoa	91.410,33
Ekarpen aldakorra	
Bilketa kostuak	146.727,56
Diru-sarrerak	23.039,18
Diru-sarrera gehigarria (2017)	11.408,00
 Guztira (2018ko ekaina)	 112.280,38

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldea Mankomunitateak aurkeztutako ondorengo fakturak onartzea

2018 ekaina	112.280,38
-------------	------------

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Ingurumen Departamentuari eta Kontuhartzaitzari.



5. ONARTZEA AMAROTZ AUZO ELKARTEAREN ALDEKO DIRU LAGUNTZARI BURUZKO AKATS-ZUZENKETA.

Aurrekariak

Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrak, bi mila eta hemezortziko irailaren hamazazpian, Amaroako auzo elkarteari 2018ko egitasmoak burutzeko diru-laguntza izenduna onartu zuen.

Ebazpen honen arabera, 27.222,86 euroko diru-laguntza dagokio, eta, 2016an sinatutako hitzarmenari segituz, laguntza honen erdia orain ordaintzea erabakitzen da.

Ebazpenean esaten da lehenengo ordainketa hau 13.772,5 eurokoa izango dela.

Azalpena

Ebazpena jaso ondoren, erabakian huts-egite bat izan dela ikusi da. Izan ere, 13.772,5 euroko kopurua ez da 27.222,86ren erdia.

Eragiketa ondo eginez gero, lehenengo ordainketak 13.611,43 eurokoa izan behar du.

Aurreko guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Amaroako auzo elkartearen aldeko diru-laguntzari buruzko akats-zuzenketa, hau da, lehenengo ordainketa 13.772,5 eurokoa izan ordez, 13.611,43 eurokoa izatea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kultura, Festak eta Gazteriako Departamentuari, Kontu-hartzailetzari eta Amaroako auzo elkarteari.

6. ONARTZEA TOLOSAKO AMAROTZ AUZOKO "AUZOETXE" ERAIKIN OSOA ETA ANBULATORIOKO LOKALA ZATIKA BERREGOKITZEKO KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA ETA HASIERA EMATEA LIZITAZIO-JARDUNBIDEARI.

1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea:	Tolosako Amaroako auzoko "Auzoetxe" eraikin osoa eta anbulatorioko lokala zatika berregokitzeko lanak egiteko obra-
---------------------	---



TOLOSAKO
UDALA

	kontratua.
Unitate sustatzailea:	Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentua.
Espedientea:	2018OABI0001

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera, non udal idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

2.- Aurrekariak

Lehena.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko irailaren 17an egindako bilkuran, besteak beste, aho batez onartu zuen Tolosako Amarotz auzoko "Auzoetxe" eraikin osoa eta anbulatorioko lokalaren zatikako berregokitzeen proiektua. Proiektuarekin batera, ezinbestekoa den zuinketa-akta jaso zen espedientearen, urriaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak (SPKL hemendik aurrera) arautzen dituenak, bere 236. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Laburbildurik, proiektuak jasotako lanak ondorengo hauek dira:

Auzoetxe eraikinaren berregokitze honetan barnealdea erabat berrituko da. Eraikinaren kanpoaldeari dagokionez, fatxadetan esku hartuko da, kanpoko arotzeria aldatuz leiho-oholen ordeztasunak jarritz, eta fatxadak dituen kalteak konponduz, margo-lanak egiteko azkenik.

Auzoetxeak, eraberritu ondoren, egun duen erabilera bera izango du. Esku-hartze honen xedea hainbat aldatetatan oinarritzen da: eraikinaren instalazioak hobetzea; barne antolamendua egungo beharretara egokitzea; erosotasuna bermatzeko isolamendua hobetzea; akaberak aldatzea; kanpoko arotziak ordezkatzeko; eta leiho-oholen ordeztasunak jartzea, besteak beste. Nahiz eta trenkada gehienak mantendu eta egun dauden instalazio gehienak erabili, eraikuntzak erabateko aldaketa jasango du, itxurari eta erosotasun baldintzei dagokienez.

Anbulatorioko esku-hartzearen helburua da hau osatzen duten eskakizun eta instalazioak irigarritasun araudira (68/2000 Dekretua) egokitzea. Ateen irekierak gutxienez 90 cm-ko tarte izan dezaten, lau ate aldatu egingo dira. Gainera, egungo bainugelak bota egingo dira, gelaurre eta bainugela irigarri bat eraikitzeko. Hauetan, hurrenez hurren, oztoporik gabeko 180 cm eta 150 cm-ko diametrodun zirkunferentziak inskribatzea posible izango da. Iturgintza, saneamendu eta argindar-argiteria instalazio berriak egingo dira, dagokien guneean.

SPKLren 232.1.c) eta 5. artikuluetan, hau xedatzen da: *"Clasificación de las obras. 1. A los efectos de elaboración de los proyectos se clasificarán las obras, según su objeto y naturaleza, en los grupos siguientes:*



- a) Obras de primer establecimiento, reforma, restauración, rehabilitación o gran reparación.
- b) Obras de reparación simple.
- c) Obras de conservación y mantenimiento.
- d) Obras de demolición.

...

“3. El concepto general de reforma abarca el conjunto de obras de ampliación, mejora, modernización, adaptación, adecuación o refuerzo de un bien inmueble ya existente.”

Beraz aurrekoa aintzat harturik, proiektaturiko lanak **erreforma lanak** direla ondorioztatu da, ondorengo hauek kontuan hartuta:

- Egingo diren lanek erabileratik sorturiko mantenimendu soila gainditzen dute.
- Lan horiek ezin dira kalifikatu konponketa gisa, SPK Legeak bere 232.4 artikuluan xedatutakoaren arabera: *“Se consideran como obras de reparación las necesarias para enmendar un menoscabo producido en un bien inmueble por causas fortuitas o accidentales.”*
- Birgaitze-lanak bezala ezin dira kalifikatu, Legeak hau esaten baitu: *“7. Son obras de rehabilitación aquellas que tienen por objeto reparar una construcción conservando su estética, respetando su valor histórico y dotándola de una nueva funcionalidad que sea compatible con los elementos y valores originales del inmueble.”*

Beraz, onarturiko proiektua aztertu ondoren, eta SPKLren 231. eta 232. artikuluetan xedaturikoa kontuan hartuz, Tolosako Amarotz auzoko “Auzoetxe” eraikin osoa eta Anbulatorioko lokalaren zatikako berregokitzeak egiteko obra-kontratuko lanak erreforma-lanak direla esan daiteke.

Horretarako, egoki diren kudeaketak eta beharrezkoa den hasierako dokumentazioa eginda, izenpetzaileak organo eskudunaren onespenerako jartzen du aipaturiko kontratuari dagokion espedientea, jarraian jasotako txostenaren eta proposamenaren arabera.

3.- Kontratazio-espedientea, kontratuaren izaera eta kaudimena

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espedientea osatu behar da. Espedientea aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da eta 117. artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espedientea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatu da:

- Espedienteari hasiera emateko Alkatetzaren Probidentzia.
- Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentuko arduradunak egindako kontratazio-proposamena.
- Proiektua: Memoria, Preskripzio Teknikoen Orria eta Aurrekontua.



TOLOSAKO
UDALA

- Administrazio-Baldintza Partikularren Plegua.

Halaber, espedientea osatu beharko da Kontuhartzailearen txostenarekin.

Kontratu honek administrazio-izaera du 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 25.1 artikulua a) atalean xedaturikoarekin bat, obra kontratua hain zuzen ere, aipatu Legearen 13. artikuluan xedaturikoaren arabera. Izan ere, SPKLren 13.1 artikuluan araututakoaren arabera, obra kontratuaren xedea I. Eranskinean aurreikusitako lanen bat exekutatzea izango dela ikusirik, egin nahi diren lanak aipaturiko Eranskinaren 45.21 atalean sailkaturikoen artean agertzen dira: *“construcción general de edificios y obras singulares de ingeniería civil (puentes, túneles, etc.)”*.

Bestalde, obra-kontratu honetan ondokoa kontuan izan behar da:

Lehena: SPKLren 99.3 artikulua hau xedatzen du loteetan banatzeari buruz: *“Siempre que la naturaleza o el objeto del contrato lo permitan, deberá preverse la realización independiente de cada una de sus partes mediante su división en lotes, pudiéndose reservar lotes de conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional cuarta.”*

No obstante lo anterior, el órgano de contratación podrá no dividir en lotes el objeto del contrato cuando existan motivos válidos, que deberán justificarse debidamente en el expediente, salvo en los casos de contratos de concesión de obras.”

Beraz, aurrekoa kontutan harturik, kontratuaren xedea, zenbatekoa eta iraupena aintzat harturik, loteetan banatzea ez da komenigarria ikusten, ez duelako kompetentzia era bidegabekoan mugatzen.

Bigarrena.- Kontratu honetan aurreikusitako balio zenbatetsia **287.766,24** eurokoa da, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 101.1.a). artikulua xedaturikoa aintzat hartuta.

Hori horrela, nahiz eta obra kontratuak araudi armonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), bere 19. artikulua arabera, kasu honetan, 20.1 artikulua xedatzen duen kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen ez duenez (5.548.000 €), ez zaio araudi horri lotzen. Halaber, kontratazioari buruzko errekurtsio berezia ezin izango da jarri, aipatu Legearen 44.1a) artikulua xedaturikoaren arabera, balio zenbatetsiak 3.000.000 euroko kopurua ez duelako gainditzen.

Hirugarrena.- Bestalde, Baldintza-Administratiboen Pleguaren I. tituluaren IV. Kapituluaren eta honen I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKL-k bere 86., 87., eta 88. artikuluetan xedatutakoaren arabera.



Kasu honetan, kontuan hartu behar da kontratuaren balio zenbatetsiak ez duela gainditzen 500.000 euroko kopurua. Beraz:

- Enpresa berriek parte har dezakete lizitazioan (88.2 artikulua).
- Lizitatuzaileen gaitasunari dagokionez, lizitatuzaileen sailkapena ez da nahitaezkoa izango (77.1.a) artikulua). Hala ere, sailkapenak gaitasuna eta kaudimena egiaztatuko ditu botere esleipendunaren aurrean (artikulu bera, bigarren paragrafoa)

Halaber, eta ordainagiriaren ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa: *“La Administración tendrá la obligación de abonar el precio dentro de los treinta días siguientes a la fecha de aprobación de las certificaciones de obra o de los documentos que acrediten la conformidad con lo dispuesto en el contrato de los bienes entregados o servicios prestados, sin perjuicio de lo establecido en el apartado 4 del artículo 210, y si se demorase, deberá abonar al contratista, a partir del cumplimiento de dicho plazo de treinta días los intereses de demora y la indemnización por los costes de cobro en los términos previstos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales. Para que haya lugar al inicio del cómputo de plazo para el devengo de intereses, el contratista deberá haber cumplido la obligación de presentar la factura ante el registro administrativo correspondiente en los términos establecidos en la normativa vigente sobre factura electrónica, en tiempo y forma, en el plazo de treinta días desde la fecha de entrega efectiva de las mercancías o la prestación del servicio.”*

4.- Espediente mota

SPK Legeak bere 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditenteak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen, arruntak edo ohikoak, presazkoak eta larrialdietakoak. Presazkoak, 119. artikuluan arautzen dira honakoaren arabera: *“geroraezinak edo, herri-onuraren arrazoiengatik, lehenbailehen esleitu beharrekoak diren kontratuen espeditenteak presaz tramitatu ahal izango dira. Horretarako, espeditenteak presa adierazpena eduki beharko du, kontratazio-organoak eginda eta behar bezala arrazoituta”*. Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak, aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: *“hondamen gertaeretan, arrisku handia eragiten duten egoeretan edota nazio-defentsari eragiten dien beharrei erantzuteko, Administrazioak berehala erantzun behar izaten duen kasuetan...”*

Kasu honetan, ez da Legearen 119. eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik, beraz, kontratazio-espeditente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorriz.



5.- Kontratuaren ezaugarriak

Obra kontratua gauzatzeko gehienez **HEMEZORTZI ASTE** ezarri dira, zuinetaren egiaztapen akta sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Lizitazio prezio orokorra ondoko hau izango da: 348.197,15 euro, horietatik 287.766,24 € printzipalari dagozkio eta, 60.430,91 euro, BEZari.

Bestalde, garrantzitsua da aipatzea kontratuaren xede diren lanak udal aurrekontu-partida honen kargura finantzatzeko direla: **0700.622.02.920.31.2018.**

Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoak aurre egiteko, aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura.

6.- Esleipena egiteko jardunbidea eta modua

Proposatutako kontratazioari ezarriko zaizkio SPKLn jasotako esleipen-jardunbide eta moduak, hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *“La adjudicación se realizará, ordinariamente, utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación basados en el principio de mejor relación calidad-precio, y utilizando el procedimiento abierto o el procedimiento restringido...”*

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espediente honetan **jardunbide irekia** erabiltzea, gardentasunaren, publikitatearen, eraginkortasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala, proposamen tekniko eta, batik bat, ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere egin beharko da SPKLren 156., 157., 158. eta 159. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, eta Administrazio-Baldintza Partikularren Pleguaren 20. klausulan eta bere I. Eranskinaren 10 eta 19 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145. eta 159. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura dutenak, hain zuzen ere.

Kasu honetan, balio-judizioetan oinarritutako irizpideek ehuneko 40 suposatzen dute eta beharrezkoa izango da atal horretan 20 puntu baino gehiago lortzea lizitaziotik kanpo ez geratzeko.

Azkenik, berme-epari dagokionez, SPK Legearen 111.5 azken idatz-zatian xedaturikoa betez, urtebetean finkatu da, eta SPKLren 111.5. artikuluan xedatutakoa betez gero, sei hilabete, kontratuaren balio zenbatetsiak ez duelako 1.000.000 €-ko kopurua gairatzen. Kasu honetan, aipatu Legearen 243.3 atalean xedaturiko kasu bereziaren aurrean gaudela iradoki du idazkari honek.



7.- Administrazio-baldintza partikularren plegua eta preskripzio teknikoen orria

Kontratazio-espediterekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio-Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Teknikoen Orria aztertu dira, kontuan harturik SPK Legearen 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa, araututako xedapenekin bat datorrela egiaztatu delarik.

8.- Kontratazio-organoa

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPK Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eta ezarritako zenbatekoak gainditzen ez direnez, printzipioz, eskumena **alkate-udalburuarena** da. Hala ere, Tolosako Udalaren kasuan, udal honetako alkate-udalburuak 2015eko uztailaren 28an emandako Dekretua kontuan hartuz, eskumena Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari dagokiola ondorioztatu du idazkari honek.

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPK Legearen 190. eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea espediterea Tolosako Amartz auzoko "Auzoetxe" eraikin osoa eta anbulatorioko lokala zatika berregokitzeko obrak kontratatzeke.

BIGARRENA.- Licitaziorako oinarritzko aurrekontua onartzea, ondokoaren arabera: Licitazio-prezio orokorra ondoko hau izango da: 348.197,15 euro, horietatik 287.766,24 € printzipalari dagozkio eta 60.430,91 euro, BEZari.

HIRUGARRENA.- Ezartzea kontratazio honen xede diren obrak gauzatzeko gehieneko epea **hemezortzi astekoa** izango dela, obraren zuinketa-egiaztapeneko akta izenpetu eta hurrengo egunetik hasita.



LAUGARRENA.- Onartzea kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio-Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Teknikoen Orria.

BOSGARRENA.- Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide irekia) eta dagokion iragarkia argitaratzea Tolosako Udaleko kontratugilearen profilean, lizitatzailleek beren proposamenak **hogei egun naturaleko epean** aurkez ditzaten, iragarkia kontratugilearen profilean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

SEIGARRENA.- Erabaki hauek jakinaraztea Idazkaritzari, Kontuhartzaitzari eta Hirigintza Departamentuari.

7. BEOTIBAR FRONTOIKO OSTALARITZA-ERAIKINEKO LEHEN SOLAIRUAN KOKATURIKO JATETXEAREN JABARIKO EMAKIDA HUTS DEKLARATZEA.

1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea:	Beotibar Frontoiko ostalaritza-eraikineko lehen solairuan kokaturiko jatetxearen jabariko emakida
Unitate sustatzailea:	Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentua.
Espedientea:	B.10.12./2018/0002

2.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, besteak beste, onartu zuen "BEOTIBAR FRONTOIKO OSTALARITZA-ERAIKINAREN LEHENENGO SOLAIRUA JATETXE GISA USTIATZEKO EMAKIDA ARAUTUKO DUEN ESPEDIENTEA INFORMAZIO PUBLIKOAN JARTZEA".

Bigarrena.- Aipatutako akordioaren iragarkia, prentsan, Kontratatzaillearen Profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2018ko maiatzaren 22an eta, akats zuzenketa bat egin ondoren, berriz argitaratu zen 2018ko ekainaren 1ean. Jendaurreko epean ez zen alegaziorik aurkeztu.

Hirugarrena.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko uztailaren 2an egindako bilkuran, emakida esleitzeko lizitazio publikoa martxan jartzea erabaki zuen eta zegokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2018ko uztailaren 18an. Gainera, lizitazioaren dokumentazio guztia Kontratatzaillearen Profilean eskuragarri zegoen.

Hauek dira lizitazioaren oinarritzko datuak:

- Epea: 30 urte.
- Prozedura: irekia.



- Urteko kanona: 10.340,90 euro gutxieneko.
- Behin-behineko bermea: 14.934,69 euro.
- Behin betiko bermea: ondasunaren balioa eta egin beharreko obren aurrekontuaren balioa batuta ateratzen den emaitzaren % 3.
- Proposamenak aurkezteko epea: 60 egun natural.
- Proposamenak aurkezteko azken eguna: 2018ko irailaren 17a.

Laugarrena.- Proposamenak aurkezteko epean, enpresek ez dute proposamenik aurkeztu; beraz, 2018ko irailaren 19an Kontratazio Mahaia bildu zen eta aho batez Kontratazio-Organuari aipatutako emakidaren lizitazioa huts deklaratzeari proposatu zion.

3.-APLIKATU BEHARREKO LEGERIA

- 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubidearen Oinarriak Arazten dituen.
- Toki Erregimenaren alorrean indarrean dauden xedapenen Testu Bategina, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, apirilaren 18koak, onartua, aplikagarri den heinean.
- Ekainaren 13ko 1372/86 Errege Dekretuak onartzen duen Tokiko Erakundearen Ondasunen Erregelamendua.
- 1373/2009 Errege Dekretua, abuztuaren 28koa, Herri Administrazioaren Ondareari buruko legearen erregelamendua onartzen duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, baina aplikagarri zaizkion xedapenak, Lege horretako 9.1 artikulua ezarritakoarekin bat.
- Arlo hauetan aplikagarri diren xedapenak: ingurumena, jabetza, jarduerak...
- Arlo hauetan aplikagarri diren xedapenak: laneko segurtasuna eta osasuna, arriskuen prebentzioa, ergonomia, sektoreko hitzarmen kolektiboak...
- Administrazio-legeria komuna, eta azkenik, osagarri gisa, zuzenbide pribatuko xedapenak.

Aurreko guztia aintzat harturik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Emakidaren lizitazioa huts deklaratzeari, Kontratazio Mahaia 2018ko irailaren 19an proposatutakoari jarraituz.

BIGARRENA.- Huts deklaratzeari berri kontratatzailearen profileen iragartzea.



HIRUGARRENA.- Emakida berriaren jardunbidea martxan jartzea.

LAUGARRENA.- Erabaki hauek jakinaraztea Idazkaritzari, Kontuhartzailetzari eta Hirigintza Departamentuari.

8. BEOTIBAR FRONTOIKO OSTALARITZA-ERAIKINEKO BEHEKO SOLAIRUAN KOKATURIKO KAFETEGIAREN JABARIKO EMAKIDA HUTS DEKLARATZEA.

1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea:	Beotibar Frontoiko ostalaritza-eraikineko beheko solairuan kokaturiko kafetegiaren jabariko emakida
Unitate sustatzailea:	Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentua.
Espedientea:	B.10.12./2018/0003

2.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, besteak beste, onartu zuen "BEOTIBAR FRONTOIKO OSTALARITZA-ERAIKINAREN BEHEKO SOLAIRUAN KAFETEGIA GISA USTIATZEKO EMAKIDA ARAUTUKO DUEN ESPEDIENTEA INFORMAZIO PUBLIKOAN JARTZEA".

Bigarrena.- Aipatutako akordioaren iragarkia prentsan, Kontratatzailearen Profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2018ko maiatzaren 22an eta, akats zuzenketa bat egin ondoren, berriz argitaratu zen 2018ko ekainaren 1ean. Jendaurreko epean ez zen alegaziorik aurkeztu.

Hirugarrena.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko uztailaren 2an egindako bilkuran, emakida esleitzeko lizitazio publikoa martxan jartzea erabaki zuen eta zegokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2018ko uztailaren 18an. Gainera, lizitazioaren dokumentazio guztia Kontratatzailearen Profilean eskuragarri zegoen.

Hauek dira lizitazioaren oinarritzko datuak:

- Epea: 30 urte.
- Prozedura: irekia.
- Urteko kanona: 14.953,90 euro gutxieneko.
- Behin-behineko bermea: 25.358,28 euro.



- Behin betiko bermea: ondasunaren balioa eta egin beharreko obren aurrekontuaren balioa batuta ateratzen den emaitzaren %3.
- Proposamenak aurkezteko epea: 60 egun natural.
- Proposamenak aurkezteko azken eguna: 2018ko irailaren 17a.

Laugarrena.- Proposamenak aurkezteko epean, enpresek ez dute proposamenik aurkeztu; beraz, 2018ko irailaren 19an Kontratazio-Mahaia bildu zen eta aho batez Kontratazio-Organoari aipatutako emakidaren lizitazioa huts deklaratzeari proposatu zion.

3.-APLIKATU BEHARREKO LEGERIA

- 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak.
- Toki Erregimenaren alorrean indarrean dauden xedapenen Testu Bategina, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, apirilaren 18koak, onartua, aplikagarri den heinean.
- Ekainaren 13ko 1372/86 Errege Dekretuak onartzen duen Tokiko Erakundeen Ondasunen Erregelamendua.
- 1373/2009 Errege Dekretua, abuztuaren 28koa, Herri Administrazioaren Ondareari buruko legearen erregelamendua onartzen duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, baina aplikagarri zaizkion xedapenak, Lege horretako 9.1 artikulua ezarritakoarekin bat.
- Arlo hauetan aplikagarri diren xedapenak: ingurumena, jatetxe jarduerak...
- Arlo hauetan aplikagarri diren xedapenak: laneko segurtasuna eta osasuna, arriskuen prebentzioa, ergonomia, sektoreko hitzarmen kolektiboak...
- Administrazio-legeria komuna, eta azkenik, osagarri gisa, zuzenbide pribatuko xedapenak.

Aurreko guztia aintzat harturik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Emakidaren lizitazioa huts deklaratzeari, Kontratazio Mahaia 2018ko irailaren 19an proposatutakoari jarraituz.

BIGARRENA.- Huts deklaratzeari berri kontratatzailearen profileen iragartzea.

HIRUGARRENA.- Emakida berriaren jardunbidea martxan jartzea.



TOLOSAKO
UDALA

LAUGARRENA.- Erabaki hauek Idazkaritza, Kontuhartzailletza eta Hirigintza Departamentuei jakinaraztea.

9. 49/2018 ETA 50/2018 FAKTURA-ZERRENDAK.

Kontuhartzailletzak **49/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **160.815,17 €**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **49 /2018** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailletzari.

Kontuhartzailletzak **50/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **89,00 €**-koa.


Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA. **-50/2018** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailletzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 9:00etan.

ALKATEA   IDAZKARIA 

